

NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VI. legegintzaldia

Iruña, 2006ko otsailaren 10a

9. ZK.

A U R K I B I D E A

B SAILA:

Foru lege proposamenak:

- Foru Lege proposamena, Kooperatibei buruzko uztailearen 2ko 12/1996 Foru Legea aldatzekoa, gizarte ekimeneko kooperatiben araubidea gehitzeko xedearekin. Osoko Bilkurak aintzat hartua (2. or.).
- Foru Lege proposamena, Nafarroako museoei eta museo-bilduma iraunkorrei buruzkoa. Osoko Bilkurak aintzat ez hartua (2. or.).
- Foru Lege proposamena, zahartzaroko eta elbarritasuneko nahitaezko aseguruaren (SOVI) erretiro eta ezgaitasun pentsioak jasotzen dituztenei, pentsioak lanbide arteko gutxieneko soldata baino gutxiagokoak direnean, laguntza osagarriak emateari buruzkoa. Osoko Bilkurak aintzat ez hartua (3. or.).

E SAILA:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da hizkuntzak ikastea susta dezan. Osoko Bilkurak onetsia (4. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da zenbait neurri har ditzan euskararen erabile-raren inguruan. Osoko Bilkurak onetsia (4. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Estatuko Gobernua premiatzen da aurrekontu orokorretan programa militarretako ikerketa eta garapenerako dagoen gastua programa zibiletarako desbidera dezan. Osoko Bilkurak bazter utzia (5. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da bideragarritasun plan bat abian jar dezan Ses-mako Erremedioen Ama Birjinaren basilizan espartzuaren museoa jartzeko. Kultura eta Turismo Batzor-deak bazter utzia (5. or.).
- Mozioa. Horren bidez, zenbait neurri proposatzen dira liburuaren industria kulturalari laguntzeko. Kultura eta Turismo Batzor-deak bazter utzia (5. or.).

G SAILA:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

- Nafarroako Kontseiluko bost kide, Nafarroako Parlamentuaren ordezkari direnak, izendatzea (6. or.).

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Foru Lege proposamena, Kooperatibei buruzko uztailaren 2ko 12/1996 Foru Legea aldatzekoa, gizarte ekimeneko kooperatiben araubidea gehitzeko xedearekin.

OSOKO BILKURAK AINTZAT HARTUA

Legebiltzarrak, 2006ko otsailaren 2an egindako Osoko Bilkuran, Kooperatibei buruzko uztailaren 2ko 12/1996 Foru Legea aldatzeko Foru Lege proposamena, gizarte ekimeneko kooperatiben araubidea gehitzeko xedearekin, aintzat hartzea erabaki zuen. Proposamen hori Socialistas del

Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak aurkeztu eta 2005eko urriaren 3ko 97. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2006ko otsailaren 8an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

Foru Lege proposamena, Nafarroako museoei eta museo-bilduma iraunkorrei buruzkoa.

OSOKO BILKURAK AINTZAT EZ HARTUA

Legebiltzarrak, 2006ko otsailaren 2an egindako Osoko Bilkuran, Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak aurkeztutako Nafarroako museoei eta museo-bilduma iraunkorrei buruzko Foru Lege proposamena aintzat ez hartzea erabaki zuen.

Proposamen hori 2005eko urriaren 10eko 102. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2006ko otsailaren 8an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

Foru Lege proposamena, zahartzaroko eta elbarritasuneko nahitaezko aseguruaren (SOVI) erretiro eta ezgaitasun pentsioak jasotzen dituztenei, pentsioak lanbide arteko gutxieneko soldata baino gutxiagokoak direnean, laguntza osagarriak emateari buruzkoa.

OSOKO BILKURAK AINTZAT EZ HARTUA

Legebiltzarrak, 2006ko otsailaren 2an egindako Osoko Bilkuran, Aralar parlamentu-taldeak aurkeztutako Foru Lege proposamena, zahartzaroko eta elbarritasuneko nahitaezko aseguruaren (SOVI) erretiro eta ezgaitasun pentsioak jasotzen dituztenei, pentsioak lanbide arteko gutxieneko soldata baino gutxiagokoak direnean, laguntza

osagarriak emateari buruzkoa, aintzat ez hartzea erabaki zuen.

Proposamen hori 2005eko urriaren 24ko 106. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2006ko otsailaren 8an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

E saila:
JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da hizkuntzak ikastea susta dezan.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Osoko Bilkurak, 2006ko otsailaren 2an egindako bilkuran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Nafarroako Gobernua premiatzen da hizkuntzak ikastea susta dezan".

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2006ko otsailaren 8an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da hizkuntzak ikastea susta dezan

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du herritarrak sentsibilizatzeko eta Europako hizkuntzak eta Nafarroako hizkuntza berekien ikaskuntza sustatzeko kanpaina egin dezan urtero.

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da zenbait neurri har ditzan euskararen erabileraren inguruan.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Osoko Bilkurak, 2006ko otsailaren 2an egindako bilkuran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Nafarroako Gobernua premiatzen da zenbait neurri har ditzan euskararen erabileraren inguruan".

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2006ko otsailaren 8an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da zenbait neurri har ditzan euskararen erabileraren inguruan

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Nafarroako Administrazio Publikoetan euskararen erabilera arautzen duen otsailaren 10eko 29/2003 Foru Dekretua berrikusi eta Euskararen Legearen aginduak osotara eta gaur egungo ikuspegitik betetzea ekarriko duen arautzea egin dezan.

Mozioa. Horren bidez, Estatuko Gobernuak premiatzen da aurrekontu orokorretan programa militarretako ikerketa eta garapenerako dagoen gastua programa zibiletarako desbidera dezan.

OSOKO BILKURAK BAZTER UTZIA

Aralar parlamentu taldeak ondoko mozioa aurkeztu zuen: "Estatuko Gobernuak premiatzen da aurrekontu orokorretan programa militarretako ikerketa eta garapenerako dagoen gastua programa zibiletarako desbidera dezan."

Legebiltzarrak 2006ko otsailaren 2an egindako Osoko Bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako

mozioa baztertzea. Mozio hori 2005eko urriaren 24ko 106. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2006ko otsailaren 8an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da bideragarritasun plan bat abian jar dezan Sesmako Erremedioen Ama Birjinaren baselizan espartzuaren museoa jartzeko.

KULTURA ETA TURISMO BATZORDEAK BAZTER UTZIA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu taldeak ondoko mozioa aurkeztu zuen: "Nafarroako Gobernuak premiatzen da bideragarritasun plan bat abian jar dezan Sesmako Erremedioen Ama Birjinaren baselizan espartzuaren museoa jartzeko."

Legebiltzarreko Kultura eta Turismo Batzordeak 2006ko otsailaren 1ean egindako bileran, era-

baki zuen aurkeztutako mozioa baztertzea. Mozio hori 2005eko urriaren 31ko 110. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2006ko otsailaren 7an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

Mozioa. Horren bidez, zenbait neurri proposatzen dira liburuaren industria kulturalari laguntzeko.

KULTURA ETA TURISMO BATZORDEAK BAZTER UTZIA

Eusko Alkartasuna parlamentu taldeak ondoko mozioa aurkeztu zuen: "Zenbait neurri proposatzen dira liburuaren industria kulturalari laguntzeko."

Legebiltzarreko Kultura eta Turismo Batzordeak 2006ko otsailaren 1ean egindako bileran, era-

baki zuen aurkeztutako mozioa baztertzea. Mozio hori 2005eko azaroaren 14ko 119. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2006ko otsailaren 7an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Nafarroako Kontseiluko bost kide, Nafarroako Parlamentuaren ordezkari direnak, izendatzea.

Nafarroako Parlamentuak, 2006ko otsailaren 2an Osoko Bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Parlamentuaren ordezkari gisa Nafarroako Kontseiluko partaide hurrengo pertsona hauek izendatzea:

– Alfredo Irujo Andueza jauna

– Julio Muerza Esparza jauna

– Enrique Rubio Torrano jauna


– José María San Martín Sánchez jauna

– Alfonso Zuazu Moneo jauna

Legebiltzarreko Erregelamenduaren 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2006ko otsailaren 8an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin



NAFARROAKO PARLAMENTUKO
ALDIZKARI OFIZIALA

HARPIDETZA ORRIA

Izen-deiturak

Helbidea

Telefonoa *Hiria*

P. K. *Probintzia*

Ordaintzeko:

Dirua Nafarroako Kutxako 2054/0000 41 110007133.9 zenbakiko kontu korrontera igorri edo bertan sartu.

